

BIZKAIKO LANDA-EREMUKO TRANTSIZIO ENERGETIKORAKO ESKUALDE-METODOLOGIAREN DISEINU PARTE-HARTZAILEA MARTXAN JARRI DA

Posted on 14/07/2025 by Naider

Category: [Albisteak](#)

Tags: [Energia positibodun hiri eta lurraldeak](#), [Metodologia diseinua](#), [Trantsizio energetikoa](#)

NAIDERren lan-taldea, [Bizkaiko Foru Aldundiko Nekazaritza Saila](#) eta [Landa Garapenerako Elkarte](#)en (LGE) ordezkariak lehen lan-bilera batean elkartu dira, landa-eremuko eskualde-planetan trantsizio energetikoa integratzeko metodologiaren diseinuari hasiera emateko.

Topaketa honetan, elkarlanean zehaztu dira proiektuaren irismena, helburu nagusiak eta LGEekin egingo diren kontraste-fase garrantzitsuen egitura. Prozesua parte-hartzailea izango da, eta lurraldearen aniztasunera egokitua, tresna praktiko eta errepikagarria sortzea du helburu, deskarbonizazioa ikuspegi ekosozialetik sustatzeko.

Metodologia lau bloke nagusitan antolatuko da: eskualde bakoitzaren testuinguru normatibo eta instituzionalaren azterketa, aukeren eta proiektuen identifikazioa, esparru estrategiko bateratuaren diseinua eta baliozkotze kolektiboa. Hurbilketa kolaboratibo honen bidez, LGEek beren lurraldeetan trantsizio energetikoa gidatzeko oinarri sendoak ezarriko dituzte, koherentziaz, zorrotz eta parte-hartzearekin.

